

2005EKO MAIATZAREN 11KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko maiatzaren hamaikan, arratsaldeko zazpietan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Eguneko Gai Zerrendatik eta presazko izaeraz "Oinezko bidea Lazkaon" obraren zertifikazioa tratatzea planteatzen da eta Tokiko Gobernu Batzarreko partaide guztiek on-tzat ematen dute.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko apirilaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen dela-rik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren, 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, BERREHUN ETA BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HIRU euro eta HOGEITA BEDERATZI zentimo (209.983,29 €)koa, bere espedientean jasotzen dena, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Go-bernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22 zbk.dun esped.: onuraduna egoitzara joan dela eta, zerbitzutik baja ematea 2005eko apirilaren 15ean.

Telealarma zerbitzua.-

- 22 zbk.dun esped.: onuraduna egoitzara joan dela eta, zerbitzutik baja ematea 2005eko apirilaren 15ean.

Ifarra-Hegoa lankidetza programa.-

2005 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetza Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, honako dirulaguntza hauek onartzea:

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Prelatura de Cametá	Haurren etxea eraikitzea. Cametá. Brasil.	6.000,00 €
Karitas	Alfabetatze eta giza heziketan laguntzeko haur eta gazteentzako zentro bat eraikitzea. Inan-Benin.	9.661,26 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Giharako edateko uraren hornikuntza sistemaren berreskuratzea. Rwanda.	9.661,27 €
Congregación de la misión, Padres Paules	Haurrak jolas egiteko eta komunitatearen erabilerarako gune bat eraikitzea. La Barquita, San Vicente de Paul Parrokia, Santo Domingo, Republica Dominicana.	6.000,00 €
Mundo solidario helburu	Gazte ezinduen gizarteratzea eta irisgarritasuna. Diriamba. Carazo. Nikaragua.	6.000,00 €
Mugen gainetik	Las Chinas, La Danta eta Buena Vista nekazal komunitateen alfabetatzea. El viejo. Nikaragua.	2.500,00 €
Medicus mundi Gipuzkoa	Jangela solidarioa. Wukro. Tigray eskualdea. Etiopia ifarra.	3.167,47 €

Erretiratu eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione Erretiratu eta Pentsiodun Elkarteari bi mila lauehun eta lau (2.404,00) eurotako dirulaguntza ematea, jardueren garapenerako.

IV.- OINEZKO BIDEA LAZKAON.-

Miguel Imaz, S.A.k Elosegi kale parean egiten ari den erreka ondoko oinezko ibilbidea lanen likidazioa aurkeztu du. Likidazio honen zenbatekoa hogeita hamabost mila zazpiehun eta hogeita zazpi euro eta hogeita bost zentimotakoa (35.727,25,- €) da.

Likidazio honek Udal Arkitektu Teknikoaren oniritzia daramala kontutan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak, aztertu ondoren, aho batez, berau onartzea erabakitzen du.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak, Eusko Jaurlaritza egiten ari den ingurugiro eta hidrauliko hobekuntza lanen barruan, Kanpandegiko zubia bota eta oinezko zubia egitearen asmoen aurrean, hainbat herritarrek izenpetuta egin behar den zubi berria ibilgailuentzako modukoa izan dadila eskatuz Udaletxera aurkeztu den idatziaren berri ematen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.